

BEZEROEKIN ERLAZIOAK

Gure kasuan, bi motatako komunikazioa erabiliko dugu bezeroekin harremanetan jartzeko.

Ahozko komunikazioa: Bezeroek zuzenean gurekin hitz egin ahal izango dute Adunako pabiloira etorritakoan. Instalazioetara gerturatzen diren bezeroei arreta pertsonalizatua eskainiko diegu, haien zalantzak eta galderak argituz eta gomendiak emanez. Horrez gain, bezeroek telefonoz jarri ahal izango dute harremanetan gurekin, modu profesional batean zerbitzatuak izateko.



Idatzizko komunikazioa: Gure webgunea, posta elektronikoa eta sare sozialak erabiliz, gure enpresari buruzko informazio garrantzitsua modu idatzian emango dugu. Webgunean, bezeroek gure produktuak, zerbitzuak eta berrikuntzak ezagutzeko aukera izango dute, eta bertatik erosteko aukera ere bai. Sare sozialetan, gure produktuaren ezaugarriak eta deskontuak eskuragarri izango dituzte, horrela, publizitatea eta bezeroekin gertutasuna ziurtatu ahal izango dugu. Posta elektroniko bidez gurekin harremanetan jarri daitezke bezeroak duda edo arazoren bat izanez gero.

